



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko apirilaren 11

46. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Hezkuntza Departamentuko Ikuskatzaileen Kidegoan egindako izendapen bereziei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren abonua-kontzertuen kopurua murrizteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Kirol Merezimenduarentzako Nafarroako Urrezko Dominak eta Nafarroako Gobernuaren kirol-sariak emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, hurrengo hilabeteotako kultur ekitaldien programazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, abenduaren 10eko uholdearen ondorioak pairatu zituzten klubei laguntzak emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Martzillako udal mugapeko 8. poligonoko 138. lurzatian dagoen behitegiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Nekazaritzako elikagaien sektorea eta landa-eremua digitalizatzeko estrategiaren gaineko ekintza planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Justizia Zuzendaritza Nagusiaren eta Nafarroako Erregistro Orokorren bulegoak berritzeko obretan irisgarritasunera bideratutako kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Nafarroa Suspertu Plana koordinatzen duen batzorde delegatuaren bilereki buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Nafarroa Suspertu Planeko konferentzia ekonomikoaren bilereki buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Nafarroan sorgin-ehizaren xede izan ziren emakume nafarren memoria eta errekonozimenduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Kideak programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren izendapena (20. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Hezkuntza Departamentuko Ikuskatzaileen Kidegoan egindako izendapen bereziei buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Roncesvalles Solana Arana andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuko Ikuskatzaileen Kidegoan egindako izendapen bereziei buruzkoa. Galdera 2022ko otsailaren 4ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Geroa Bai talde parlamentarioak 10-22-PES-00028 galdera aurkeztu du, idatziz erantzutekoa. Hori dela-eta Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Legegintzaldi honetan hiru izendapen berezi egin dira, irakasle funtzionario hauek izendatuz: Juan Ibáñez Sola jauna, Arantxa Irisarri Etxeberria andrea eta José Blanco Velasco jauna. Egun hauetan izendatu dira:

Juan Ibáñez Sola jauna 2020ko irailaren 1ean

José Blanco Velasco jauna 2021eko irailaren 2an

Arantxa Irisarri Etxeberria andrea 2021eko irailaren 21ean

Juan Ibáñez Sola jaunaren eta Arantxa Irisarri Etxeberria andrearen izendapenak egin zirenean euskarazko zerrenda agortuta zegoen, zerrenda horretan inor ere ez zegoen.

José Blanco jaunaren kasuan bazegoen pertsona bat gaztelaniazko zerrendan, Jesús M<sup>a</sup> Arbea Polite jauna, baina uko egin zion lanpostu horri, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketaren Plangintza eta

Antolamendu Zerbitzuko Lanbide Heziketaren Plangintza, Antolamendu eta Garapenerako Ataleko burua zelako garai hartan. Txosten hau egin den egunean kargu horretan dirau. Hezkuntzako ikuskatzaile lanpostuetan aldi baterako aritzeko izangaien zerrenden kudeaketa apirilaren 23ko 35/2013 Foru Aginduak arautzen du gaur egun. Honako hau ezartzen du 13. artikuluan:

“13 artikulua. Eskaintzari uko egitea eta baztertua izatea

1. Eskaintzaren unean lanpostu bati uko egiten dioten izangaiak dauden zerrenda guztietatik kenduko dira Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendaria-riaren ebazpen baten bidez.

2. Aurreko atalean aurreikusitakotik salbuetsita daude izangaiaren egoera hauek: eszedentzia berezia, borondatezko eszedentziaren lehen urtea, aldi baterako ezintasuna, amatasun, adopzio edo harreragatikotik lizentzia, ikastetxeko zuzendaritza taldeko kide izatea edo burutza edo izendapen libreko lanpostu batean aritzea Administrazioan, izendapen unean. Kasu horietan, izangaiak uko egiten ahalko diote eskaintzen zaien lanpostuari eta prest ez dauden izangaien zerrendetan agertuko dira, harik eta uko egitera eraman dituen egoera bukatu dela frogatu arte”.

Azaldutako kasuan, uko egiteak ez dakar zerrendetatik ateratzea, Jesús M<sup>a</sup> Arbea Polite funtzionarioaren egoera bat datorrelako aipatu foru aginduaren 13. artikulua 2. puntuko salbuespenarekin.

Izendatutako pertsonak ez ziren azken deialdi-ko oposizioan parte hartutakoak.

Erantzunean aipatu den foru agindua indarrean dago hiru izendapenatarako, eta honako hau ezartzen du 5. artikuluan: “(...) Izendapen berezi horiek ikasturte baterako izanen dira; betiere, ikasturteko abuztuaren 31n bukatuko dira”.

Juan Ibáñez Sola jaunaren zerbitzu eginkizunak 2021eko abuztuaren 31n amaitu ziren.

Arantxa Irisarri Etxeberria andrearen eta José Blanco Velasco jaunaren zerbitzu eginkizunak 2022ko abuztuaren 31ra arte daude onartuta.

Iruñean, 2022ko otsailaren 17an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

---

## **Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren abonu-kontzertuen kopurua murrizteari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren abonu-kontzertuen kopurua murrizteari buruzkoa. Galdera 2022ko otsailaren 4ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22/PES-00029) Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren abonu-kontzertuen kopurua murriztu izanaren arrazoiei buruz. Hona Nafarroako Gobernu-ko Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Orkestra Sinfonikoaren abonu-kontzertuen kopurua Baluarteke entzunareto nagusiko emaldietan murriztu da. Bi egunetik (osteguna eta ostirala) egun batera (osteguna) pasatu da. Bateratze horrek ez du publikorik kentzen, abontuen kopurua areto nagusiko tokien kopurua baino txikiagoa baita; eta, gainera, kontzertuetarako txartel solteak saltzea ahalbidetzen du.

Bateratzearen arrazoiak bi dira: batetik, giza eta diru baliabideen kudeaketa jasangarriagoa eta eraginkorragoa; bestetik, orkestra Nafarroan zehar aritu ahal izatea. Hain zuzen ere, denboraldi honetan bost kontzertuko zikloa estreinatu da Tafallan. Tuteran finkatuz doan egitarauari gehitu zaio, eta lurralde osoan herri gehiagori erantzutea ahalbidetzen du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, Kirol Merezimenduarentzako Nafarroako Urrezko Dominak eta Nafarroako Gobernuaren kirol-sariak emateari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Bonilla Zafra jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Kirol Merezimenduarentzako Nafarroako Urrezko Dominak eta Nafarroako Gobernuaren kirol-sariak emateari buruzkoa. Galdera 2022ko otsailaren 4ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22/PES-00030) Nafarroako kirolaren goresmen sariei buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Nafarroako Gobernuak, 2021eko azaroaren 24ko bilkuran, Nafarroako Foru Komunitateko kirolaren goresmen sariak arautzen dituen 100/2021 Foru Dekretua onetsi zuen. Arau horrek beste bi ordeztu ditu, gai hori lehenago arautzen zutenak: abenduaren 21eko 363/1998 Foru Dekretua, eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren apirilaren 5eko 42/2001 Foru Agindua.

Azken edizioetako eskarmentuak eta Nafarroako Foru Komunitateko kirol sarearen etengabeko bilakaerak beharrezko egiten zuten kirol sariak eta horien helburuak birplanteatzea, horiek emateko prozedura malgutuz eta arinduz, eta kirol jardueraren fisikoen garapenean (alderdi ezberdinetan) beren denbora eta esfortzua ematen duten pertsona eta entitateen aitortza sozialaren espiritua errespetatuz. Hori guztia, kirol jardueraren sustatzeko xedez.

Goresmen sariak aldatzen, birdefinitzen eta argitzen dituen araua da, eta hautagaien balorazioan aintzat hartu beharrezko merezimenduak eta irizpideak zehazten ditu. Halaber, kirolaren goresmen sariak emateko prozedura arintzen du, eta kirolaren sarien kasuan aukera ematen du herritarrek parte hartzeko prozedurak sustatzeko, herritarrek bozkatu dezaten.

Nafarroako kirolaren goresmen sarien araudian egindako aldaketei eta berrikuntzei buruzko azalpenak eman ziren Nafarroako Kirolaren Kontseiluak abenduaren 13an egin zuen osoko bilkuran.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko otsailaren 24an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, hurrengo hilabeteotako kultur ekitaldien programazioari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin hurrengo hilabeteotako kultur ekitaldien programazioari buruz Alberto Bonilla Zafra jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko otsailaren 4ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22/PES-00031), jakin nahi baitu ea Kultura eta Kiroleko

Departamentuak zer asmo darabilen gogoan heldu diren hilabeteotarako Kulturaren arloko murrizketak direla-eta. Hona Nafarroako Gobernu-ko Kultura eta Kiroleko kontseilariak ematen duen informazioa:

Iragan otsailaren 15ean Nafarroan amaiera eman zitzaien seigarren olatua geldiarazteko indarrean egondako murrizketei (kulturaren arloari dagokionez, zenbait egoeratan COVID pasaportea aurkeztu beharra eta janari-edariak kontsumitzeko debekua).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko martxoaren 4an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, abenduaren 10eko uholdearen ondorioak pairatu zituzten klubei laguntzak emateari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Bonilla Zafra jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, abenduaren 10eko uholdearen ondorioak pairatu zituzten klubei laguntzak emateari buruzkoa. Galdera 2022ko otsailaren 11ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22/PES-

00032), jakin nahi baitu zergatik eman zaizkien laguntzak abenduaren 10eko uholdeak pairatu zituzten klub jakin batzuei eta beste batzuei, aldiz, ez. Hona Nafarroako Gobernu-ko Kultura eta Kiroleko kontseilariak ematen duen informazioa:

Uholdeak kaltetutako kirol klubentzako laguntzak Nafarroako Parlamentuak onetsi zituen 2021eko abenduaren 23an, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, partida izendunen bitartez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko martxoaren 4an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, Martzillako udal mugapeko 8. poligonoko 138. lurzatian dagoen behitegiari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Martzillako udal mugapeko 8. poligonoko 138. lurzatian dagoen behitegiari buruzkoa. Galdera 2022ko otsailaren 11ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Martzillako udal mugapeko 8. poligonoko 138. lurzatian dagoen behitegiari buruz (10-22-PES-00033). Hori dela-eta, hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Galderei erantzun aurretik komeni da honako hau argitzea Martzillako instalazioaren titulartasunari dagokionez:

– Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako zuzendari nagusiaren 1996ko maiatzaren 7ko 462 Ebazpenaren arabera, abeltegian lehen titularra SAT Zumardi izan zen.

– Gero SAT Zumardik Ganadería Las Bardenas SLri eskualdatu zion abeltegia, eta jarduera behi gizendegi bilakatu zen.

– Azkenik, Ganadería Las Bardenas

SLk (IFK: B319555974) titulartasuna eskualdatu zion 4615 zenbakiko SAT Etxeberriari (IFK: F31138522) (Abeltzaintza Zerbitzuaren 2014ko urtarrilaren 3ko 2115 Ebazpena). Azken aldaketa hori ez zitzaion jakinarazi Martzillako Udalarari, eta horregatik aldatu gabe gelditu zen instalazioaren jarduera-lizentziaren titulartasuna.

Halaber, Martzillako instalazioak Larraungo ustiategi nagusiarekin duen loturari eta haren egoera administratiboari dagokionez:

– SEPRONAREN salaketan, bisita egin zenean inor ez zegoenez instalazioetan, agenteek abereen belarritakoen bidez identifikatu zuten ustiategia. Horrela jakin zen 4615 zenbakiko SAT E-

txeberriak Larraungo udalerrian zeukan ustiategitik ekarritako abereak zirela, eta, ondorioz, SEPRONAK ustiategi horren izenean egin zuen salaketa.

– Salaketa jasotakoan, Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuak, ustiategia eta haren kokalekua identifikatzeko, Abeltzaintza Zerbitzuaren datu-basera jo zuen. Izan ere, izen horrekin eta leku horretan (Martzillako 8. poligonoko 138. lurzatian) ez zegoen inongo ustiategirik Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren datu-baseetan. Entitatearen zentro bakarra Larraungo udalerrian ageri zen.

– SAT Etxeberriaren Larraungo instalazioa, hasiera batean Martzillako instalazioaren titulartzat hartu zena, Ingurumena Babesteko Esku hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen 2.B eranskineko 9.1.f) epigrafean zegoen (“Eskorta hegaztiak edo behiak edo zerriak intentsiboki hazteko instalazioak, 250 esne behi heldu baino gehiago dituztenak”) eta, horrenbestez, ingurumen baimen integratuaren araubidea zuen.

– Hori dela-eta, salaketa izapidetzean hasiera batean instalazio hori agertu zen salatu gisa, zeinak ingurumen baimen integratuarekin funtzionatzen baitzuen, Ingurumena Babesteko Esku hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legeari jarraituz.

– SAT Etxeberriak, aurrean esan bezala, Martzillako instalazioak erosi zituenean, titulartasun aldaketa eskatu zion Abeltzaintza Zerbitzuari, baina ez zuen jakitun jarri Martzillako Udala. Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuak egoera detektatu zuen unean eskatu zuen titularrak jarduera-lizentziaren titulartasun aldaketa.

Honako galdera hauek egin dira:

Lehen puntua: Landa Garapeneko Departamentuak zer egin du Martzillako udal mugapeko 8. poligonoko 138. lurzatian dagoen behitegia dela-eta SEPRONAK igorritako txostena ikusita?

Erantzuna: Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuak honako hau egin du:

– 2021-02-16an zerbitzu horretan SEPRONA-ren salaketa jaso zen esne behien ustiategi bateko minda jariora zela eta.

– Salaketa izapidetu zen eta zehapen-espeditentea abiarazteko eskatu zitzaion Ingurumenaren Araubide Juridikoaren Atalari, 2021-03-15ean.

– Halaber, egiaztatu zen zentroak ez zeukala ez simaurra kudeatzeko planik ez jarduera sailkaturako lizentziarik. Horregatik, enpresari errekerimendua ere egin zitzaion inguruabar horiek argitzeko, 2021-04-20an.

– Enpresak jakinarazi zuen ustiatetik simaurra kudeatzeko planak 1630080138/2/1 kodea zuela. Plan hori hobekuntzarako errekerimenduen ondoren sortu eta idatzi zen; beraz, salaketaren unean ustiatetia simaurra kudeatzeko planik gabe funtzionatzen ari zen.

– SAT Etxeberriak Martzillako instalazioaren titulartasun aldaketa eskatutakoan, 2021-06-17an, Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuak Ingurumenaren Araubide Juridikoaren Atalari jakinarazi zion Martzillako Udalari zegokio la zehatzeko eskumena, salbu eta uko egiten bazion edo epea betetzen ez bazuen.

– Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuak 2021-08-04an Martzillako Udalari helarazi zion komunikazio hori, balorazio-txostenarekin batera, toki erakundeak hilabeteko epean adieraz zezan ea zehatzeko eskumena baliatuko zuen, jarduera sailkaturako udal lizentziaren araubidepeko instalazioa izategatik.

– Ez zen Martzillako Udalaren komunikaziorik jaso eta Ingurumen Departamentuko Araubide Juridikoaren Atalari berriz proposatu zitzaion zehapen-espeditentea abiaraztea SAT Etxeberriaren Martzillako instalazioaren kontra.

Bigarren puntua: Zehapen-espeditentetik abiarazi al zen?

Erantzuna: Bai, aurreko puntuan azaldu den moduan.

Hala baldin bada, noren aurka abiarazi zen zehapen-espeditentea?

Erantzuna: Zehapen-espeditentea Martzillako SAT Etxeberriaren aurka abiarazi da.

Zer gertakari izan liteke arau-hauslea eta zer arau hautsiko luke?

Erantzuna: Arau-hauste izan litezkeen gertakariak balorazio-txostenean adierazitakoak dira, honako hauek, hain zuzen:

• 148/2003 Foru Dekretua, 7. artikulua. 1.a. Abeltzaintzako instalazioen lurzorua iragazgaitza izanen da, non ez den azpi beroa erabiltzen, hau da, behar adina material xurgagarri, ez dadin inola ere lixibiatu isuri edo lur azpira sartu.

• 148/2003 Foru Dekretua, 7.3 artikulua. Estabulazio libreko abeltegietan, euri urak estali gabeko patioetan hondakin ura sortuz gero, hura bideratu eta bilduko duen sistema bat beharko da aurreikusi, gero simaurra metatzen duten biltegi-tara eramateko. (...) Estali gabeko eremu horrek lurzoru iragazgaitza izanen du, akuifero oso iragazkorak diren lurretan.

• 148/2003 Foru Dekretua, 7.7 artikulua. Kutsatu gabeko euri ura behar bezala bideratuko da hondakin ura eta simaurra ukitu gabe.

• 148/2003 Foru Dekretua, 7.8 artikulua. Debatua dago azientak aire zabalean edukitzea azaleraren unitateko abere zamak bertako landare-tzan edo ezarritako laborean eragin kaltegarri nabaria duenean, edo hondakin hondarrak kanpora isurtzeko arriskua dagoenean.

• 147E/2020 Foru Agindua, I. eranskina, 3.5 puntua, abeltzaintzako instalazioei buruzkoa. (...) kutsa daitezkeen eremuetan dauden abeltzaintzako ustiatetik zenbait baldintza bete beharko dituzte (...) ongi zaindu beharko dira erabiltzen diren materialen kalitatea, egonkortasuna, osotasuna, iragazgaitasuna, iraunkortasuna eta erabiltzeko eta mantentzeko baldintzak:

Kanpoan egoteko eta jarduteko eremuak iragazgaitz mantentzea. Horiek malda nahikoa izanen dute, ziurtatu ahal izateko efluenteak edo, horrelakorik ezean, simaurra eta minda biltegi-tara eramaten direla. (...)

Espeditentea bukatu eta zehapenik ezarri al da?

Erantzuna: Zehapen espeditentea izapidetzen ari da.

Hirugarren puntua: Behitegi horren titularrak ba al zeukan ingurumen baimen integraturik abeltzaintzako instalazio hori paratzeko?

Erantzuna: Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duen abenduaren 16ko 1/2016 Errege Lege Dekretuak zenbait atalase gainditzen dituzten hegazi edo zerri hazkuntza intentsiborako instalazioak bakarrik aurreikusten ditu I. eranskinean; ez ditu aurreikusten behi azientaren instalazioak.

SAT Etxeberriaren Martzillako instalazioak jarduera-lizentziaren araubidearen pean funtzionatzen zuen.

Behin indargabetuta 4/2005 Foru Legea, SAT Etxeberriaren Martzillako instalazioak ingurumen baimen bateratuaren araubidearen pean funtzionatzen du 2021eko ekainaren 22tik, 17/2020 Foru Legean ezarritakoarekin bat etorriz.

Laugarren puntua: Martzillako Udalak abeltegi horren berri eman al dio inoiz departamentuari?

Erantzuna: Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan ez dugu jaso Martzillako Udalaren erantzunik.

Udalari neurriren bat hartzeko eskatu al zaio?

Erantzuna: Ez zaio neurririk hartzeko eskatu Martzillako Udalari, instalazioak beraren eskumeneko eremuan funtzionatzen zuelako. Lehen pun-

tuan adierazitako egunetan Martzillako Udalari bidali zitzaizkion SEPRONAREN txostena eta Departamentuak egindako balorazio-txostena (INS Informe de valoración\_01\_20210315125555). Txostenaren edukia ikusirik Udalak neurriak hartu behar zituen, agintaritza eskuduna zen aldetik.

Eskatu baldin bazaio, zer neurri hartu du eta zer ondorio izan du?

Erantzuna: aurreko puntuan dago erantzuna.

Iruñean, 2022ko martxoaren 3an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López



## Galdera, Nekazaritzako elikagaien sektorea eta landa-eremua digitalizatzeko estrategiaren gaineko ekintza planari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nekazaritzako elikagaien sektorea eta landa-eremua digitalizatzeko strategiaren gaineko ekintza planari buruzkoa. Galdera 2022ko otsailaren 11ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-35). Hona Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Informazio eskaera:

Zure departamentuak ba al du Nekazaritzako elikagaien sektorea eta landa-eremua digitalizatzeko strategiaren gaineko ekintza planik?

Zer epe darabilzue gogoan?

Zein da egin beharreko ekintzen eskema?

Erantzuna.

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak "Nafarroa 2030 Estrategia Digitala" prestatzen parte hartu du. Zeharkako lana da, Nafarroako Gobernuak departamentu guztiei eragiten diena, eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuko Telekomunikazioetako eta Digitalizazio Zuzendaritza Nagusiak gidatu du. Haren jarduketara ildoetako batzuk lehen sektoreari eta landa-garapenera dagozkie, eta badituzte digitalizazioari eta teknologia berriei buruzko ekintza berriak.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioarekin ere elkarlanean aritu gara "Nekazaritzako Elikagaien eta Basogintzaren Sektorea eta Landa Ingurunea Digitalizatzeko Estrategia" prestatzen, zeinak eremu horretan garatu beharreko ildo estrategikoak eta neurriak biltzen baititu, hala nola AKIS aholkularien plataforma, digitalizazio paketea (nekazaritzako ustiategiarentzako aholkularitza, 2014-2020 aldirako Landa Garape-

nerako Programa Nazionalaren esparruan), Big-MAPA, nekazaritza sektorean doitasuneko nekazaritza eta 4.0 teknologiak erabiltzeko bultzada eta abar, 2021-2023 aldirako II. Ekintza Planean azaltzen den moduan.

Bi strategiaren eta ministerio planaren esparruan, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentua zenbait jarduketa garatzen ari da. Honako hauek dira:

1. Nekazaritza Politika Erkidea. Europako laguntzen kudeaketaren arloan, abian jartzen ari dira digitalizazio proiektuak, NBEFekin lankidetzan (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa), nekazari eta abeltzainek Administrazioarekin dituzten harremanak telematikoa izan daitezke:

◆ SGA: FEAGA eta LGENF laguntzak kudeatzeko web aplikazio bat da. Hainbat modulu ditu, besteak beste eskaeren atzematea eta SIGPACi buruzko alegazioen aurkezpena, kontrol administratiboak eta bertatik bertarakoak, laguntzen kalkulua eta interesdunarekiko komunikazioa. Modu digitalean biltzen du eskatzaileen informazioa, eta haien espediente elektronikoak sortzen ditu.

◆ Herritarraren ataria: web aplikazio honetan, SGAREN bidez aurkeztutako laguntzen eskatzaileek kontsulta telematikoa egiten ahal dute jakiteko zein diren beren espedienteen izapidetze egoera, kontrol administratiboaren eta bertatik bertarako enaitzak, antzemandako gorabeherak, igorri zaizkien jakinarazpenak, kalkulaturako eta ordaindutako laguntzen zenbatekoak, etab. Gainera, alegazioak aurkezteko eta behin erregistratutakoan haien egoera ikusteko erabil daiteke. Funtzionalitate horiek gailu mugikorretarako SGApp izeneko aplikazioan ere sartu dira.

◆ Monitorizazioa: kontrolerako metodologia berria, sektore aeroespazialean oinarritua, Copernicus programari esker. Sentinel izeneko sateliteen familien edo misioen behaketetatik sortutako informazioak ahalbidetzen du aldi behin eta etenik gabe egiaztatzea bateragarriak direla nekazariak aitortutako nekazaritzako jardura eta hurrenez hurreneko irudi seriean ikusitakoa; informazio horrek, adimen artifizialeko sistemen bidez landurik eta bestelako teknologiek osaturik – esaterako, argazki geoetikatuak egiteko aplikazioekin edo droneekin –, aukera ematen du lagun-

tzen onargarritasun irizpideak egiaztatzeko, neurri handian modu automatikoan, eta erabiltzaileei jakinarazteko.

◆ SGAFot: mugikorretarako aplikazio hau garatu da onuradunek argazki georreferentziatuak egin ahal izateko eta Administrazioari erraz bidali ahal izateko, hala eskatzen zaienean.

◆ SIEX: nekazaritzaren sektoreko datuen digitalizazioak aurrera egin behar du kudeaketaren arloan hasitako bidetik; horregatik, 2023. urtetik aurrera abian jarriko da ustategiei buruzko informazio sistema hau. Helburua du NPEaren kudeaketan erabiltzen diren sistema guztiak erabat digitalizatzea, aurrerapauso kualitatibo handia emanez nekazari eta abeltzainekiko harremanetan erabiltzen diren tresnen modernizazioan: elkarrekin konektatuta egongo dira ustiapen koaderno elektronikoa, ustategien erregistro autonomikoa eta nazionalak, abereen trazabilitate sistema (SITRAN), nekazaritzako ekoizpenaren erregistro orokorra (REGIPA), NPEko eskabide bakarraren erregistroa (RSU) eta beste datu-base batzuk, eta lagundu egiten diete nekazari eta abeltzainei. Ildo beretik, SGARex tresnaren bitartez nekazari eta abeltzainek beren ustiategiari buruzko informazio guztia eguneratu beharko dute; SGACex eskura jarriko zaie ustiapen koaderno kudeatzeko, bai eta mantengutza kudeatzeko ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2015 (EB) Erregelamenduaren 15. artikulua (4.g) apartatua eskatzen den bezala.

2. INTIA lanean ari da nekazaritzako elikagaien sektorearen eta landa ingurunearen digitalizazioan, I+Gko proiektu mordoak eta entitate nazional zein nazioartekoekiko lankidetzak direla medio. Gaur egun honako lan hauek egiten ari da:

◆ Sektorearen digitalizazioarekin zerikusia duten nazioarteko lizitazioak eta lantalde nazionalak:

- Digitalizazioa eta Big Data (Nekazaritza, Elikadura eta Arrantza Ministerioa): INTIAk entitate aditu gisa parte hartu du Nekazaritzako Elikagaien eta Basogintzaren Sektorearen eta Landa Ingurunearen Digitalizazio Estrategia (mapa.gob.es).

- FAST: Nekazaritzako ZNren esparruan (Europako Batzordea) eta "Study for the development of a common framework for the quantitative advice of crop nutrient requirements and greenhouse gas emissions and removal assessment at farm level" ikerlanerako, lankidetzan arituz Espainiako, Frantziako, Poloniako eta Italiako entitate batzuekin, mantengutza balantzerako FaST (Farm Sustainability Tool for Nutrients) tresnaren garapenean lan egin du.

- Koaderno Digitala (NBEF): tresna honen definitzioan lan egin du DATAGRI 2021 bileraren esparruan, eta arlo horretan lanean jarraitzeko direktorio batean sartu da.

◆ Digitalizazioaren eta tresna digitalen arloko I+Ga:

- EVOLTECH: digitalizazioaren arloko saiakuntza zerbitzua garatzea ahalbidetzen du EVOLTECH | Intia (intiasa.es).

- App fitos: nekazaritzan baimendutako produktu fitosanitarioei buruzko informazio egunera-tua edukitzeko aplikazioa.

- App riego: web-based tresna, laborearen eta zonaren arabera ureztapenari buruzko aholkuak jasotzeko Ureztatze aholkuak (intiasa.es).

- Abisuen estazioa: nazioartean saritutako Europako proiektu baten barnean (AGROIntegra LIFE proiektua, ingurumen arriskua gutxitzeko) garatua, Nekazaritza eta abeltzaintzako abisuen estazioak ahalbidetzen du landareen izurri eta gaitzei eta abereen gaitzen bektoreei jarraipena egitea denbora errealean eta modu georreferentziatuan.

- Agrogestor eta Agroasesor: web-based tresnak, App formatukoak, LIFE proiektu hauen barruan garatuak: AGROgestor – Laboreen kudeaketa kolektiboa uraren erabilerarekin eta kalitatearekin zerikusia duten ingurumen programen zerbitzuan) eta sigAGROasesor - Labore ekologikoen kudeaketa jasangarritako tresnaAGROasesor tresnak lurzatiko jarduketan kudeaketa aholkularitzarekin lotzen du, erabakietan laguntzeko tresnen bitartez, ongarritzea, ureztatzea, laboreen satelite bidezko jarraipena eta jasangarritasunaren adierazleak direla-eta. AGROgestor tresnak behar diren bitartekoak eskaintzen ditu nekazaritza sistemen ebaluazioa egin ahal izateko, produktibitatearen, efizientziaren eta jasangarritasunaren 31 adierazle kalkulatuak.

- FAIRSHARE: TEAGASCekin (Irlanda) eta "Coordination and Support Action"ekin lankidetzan, Europako aholkulari inpartzialen gaitasun digitalak indartzen ari dira, digitalizazio tresnak, zerbitzuak eta expertise-a direla medio Fairshare Project (h2020fairshare.eu).

- BOVINE: TEAGASCekin (Irlanda) eta "Thematic Network"ekin lankidetzan, haragitarako behien sektorearen jasangarritasunari begira, funtsezko lau arlo lantzen ari dira, alegia, erresilientzia sozioekonomikoa, abereen osasuna eta ongizatea, ekoizpenaren efizientzia eta kalitatea, eta ingurumen jasangarritasuna. Digitalizazioa zeharkako tresna gisa arakatzeko da Home - Bovine

(bovine-eu.net).

- RUSTWATCH: Danimarkako Aarhusko Unibertsitatearekin eta "Research and Innovation Action" delakoarekin koordinaturik, helburua da alerta goiztiarreko sistema ezartzea herdoil horiarentzat, herdoil arrearentzat eta zurtoineko herdoilarentzat. Diagnostikorako instalazio partekatua eta eragileen sareak ditu oinarri, ikerketan, landare hobekuntzan, gaitzen kudeaketan eta nekazarientzako aholkularitzan aritzen direnak, monitarizazioan, laginketan, datu trukean eta amaierako erabiltzaileentzako ezagutza-transferentzian parte hartuz RustWatch (au.dk).

- Smart-AKIS: sare honek lantalde batzuk sortu ditu Nafarroan, sektorea digitalizatzea eragozten duten oztopoei ekiteko; elkarlanak ahalbidetzen ditu eskualde mailan eta Nafarroako LGPko M16.2 neurriko proiektuetan Home - Smart-AKIS.

- Digital Innovation Hub IRIS (adimen artifiziala eta robotika industriarentzat eta gizartearentzat): Nafarroako Berrikuntza Digitalaren Polo Europarraren esparruan abiatu berri den lankidetzako publiko-pribatuko IRIS proiektu bat da; lankidetzan esperientzia duten eta beren espezializazioaren araberrako zerbitzuak ematen dituzten entitateen ekosistema baten bitartez hedatzen da.

3. Lankidetzako proiektuak Nafarroako LGPko M16.2 neurrian:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuarentzat, nekazaritzako elikagaien katearen berrikuntza eta hura osatzen duten eragileen arteko lankidetzako funtsezkoak dira lehen sektorearen modernizazioarako eta bideragarritasunerako. Ustiatzeki jasaten dituzten arazo zehatzei konponbide adierazgarri eta berriak bilatzea, sektoreari behar duen babesa ematea eta nekazari, lanbide-erakunde, kooperatiba, berrikuntza-zentro eta unibertsitateen arteko elkarlana oinarritzko tresna bilakatu dira aurrerabide horretan. Hori dela-eta, urtero laguntzen deialdia egiten da produktu, jardunbide, prozesu eta teknologia berriak garatzeko, Nafarroako LGParen esparruan.

Garatu diren edo gauzatzen ari diren proiektuetako batzuek zerikusia dute nekazaritzako elikagaien sektorearen digitalizazioarekin:

- ◆ Arkumeen autopisaketa: erregistroa, identifikazio elektronikorekin, eta irudiaren bidezko balidazioa. Helburua da Nafarroako arrazako haragitarako ardiak hobekuntzan aurrera egitea esnearen balioari edo amatasunerako gaitasunari dagokionez, zeina arkumeen hazkundearen bitartez neurtzen baita, baskula adimendunetan haien

pisua erregistratuz, berezkoa duten jakin-mina eta portaera baliaturik.

- ◆ 4.0 kudeaketa hegazti ustiatzekiaren. Helburua da kudeaketa sistema adimenduna ezartzea hegazti haztegi intentsiboetan. Horretarako, infragorri urrunean oinarritutako klimatizazio sistema instalatu eta martxan jarriko da, giroko baldintzen etengabeko kontrolaren bidez erregulatua (AVIR sistema), produktibitatea hobetze aldera.

- ◆ Ardiak kudeaketa modernizatu eta trazabilitatea hobetzea. Helburua da ardi azientzaren kudeaketa hobetzea bitarteko elektronikoen ezaurriz, horrela denbora aurreztu eta trazabilitatea bermatuko baita aberearen sorlekutik hasi eta banaketa- eta salmenta-guneraino, bizirik dagoela nahiz hildakoa.

- ◆ Abeltzari mailan bazka baloratzeko teknika azkar eta eramangarriak. Helburua da NIR teknologia eramangarria ezartzea bazka analitzatzeko, tresna baliagarria baita esne behien anoen eta Nafarroako esne behien ustiatzekiaren jasangarritasunari buruzko aholkularitza teknikoan.

- ◆ Mahastietako ureztapen beharren kalkulurako eta errendimenduaren estimazio goiztiarrerako sistema (PILOTVID). Helburua da mahastietako eguneroko kudeaketan azaltzen diren erroka tekniko garrantzitsuenetako biri erantzutea: lurzati bakoitzean errendimenduen estimazioa behar bezain goiz egitea, eta ureztapena laborearen benetako beharretara egokitzea.

- ◆ Abereen kudeaketa automatizatzea beharretan eta baliagarritasunaren araberrako irizpideetan oinarrituta. Helburua da abereen kudeaketa hobetzea, aplikazioez eta softwareaz osatutako sistema bat sortuz, aukera emanen duena bezereen abere eskaria, abereak ateratzeko beharrak eta abereen ezaugarriak konbinatzeko. Sistema hori osatzeko, ustiatzekiaren geolokalizazioaren bidez eraginkorragoa izanen da abereen bilketa.

- ◆ Elikagai ekologikoak eta tokikoak hirigunetan zuzenean saltzeko merkataritza estrategiak. Helburua da merkataritza estrategia kolektiboak eta berritzaileak garatzea, ekoizleei lagunduko dietenak azken kontsumitzailearengana modu eraginkorrean iristen, zuzeneko merkaturatze bideak erabiliz.

- ◆ Irakurgailu-igorgailuak ezartzea ardi lantxaren eta Nafarroako arrazaren hobekuntza genetikoko ezaugarri berrietarako. Helburua da landa-lanean datu bilketaren trazabilitatea hobetzea, bai liburu genealogikoan bai ekoizpenen kontrolean erregistro fidagarria edukitzeko, bi arrazaren hautespen eskemetan hobetu nahi diren

ezaugarri berezietara egokitua (amatasunerako gaitasunera eta bizitza luzera, hurrenez hurren)

◆ Smart managing wine. Helburua da jasangarritasuna kudeatzeko sistema bat diseinatu eta inplementatzea web ingurune batean, nekazaritza-ustiategi eta ardandegi baten portaera ebaluatu ahal izateko, oinarritzat harturik gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-adierazle (KPI) batzuk.

◆ Mahastizaintzarekin lotutako ekosistemak lehengoratu, zaindu eta hobetzeko laborantza-estrategiak (VIÑASOSTENIBLE). Helburua da mahastiak kudeatzeko eredu berri bat garatzea, nekazaritzako jardueraren eragina konpentsatuko duena, habitatak hobetuz eta fitosanitarioen erabilera murriztuz. Horretarako, horiek emateko sistema eraginkorragoak eta erabakitzen laguntzeko tresnak (DSS) erabiliko dira.

◆ Haragitarako behi eta ardi aziendaren abere-ongizatea ziurtatzeko sistema. Helburua da abere-ongizatearen ziurtapen sistema bat sortzea haragitarako behi eta ardi aziendaren sektorearentzat, abeltzainen balidazioarekin.

◆ Datuen kudeaketa integrala, ureztapen eraginkorrerako (GESRIEGO). Helburua da modu integralean kudeatzea ureztapenaren plangintza eraginkorrari buruz han eta hemen dagoen informazioa, nekazaritzan ureztatze-uraren erabilera eraginkorragoa lortzeko, ureztalurretako ureztatzaile-elkarte eta kooperatibetan ureztatze-uraren erabilera eraginkorra sustatzeko eta lurzati maldatsuetako lurzoru galeran aspertsiozko ureztapenak duen eragina ebaluatzeko.

◆ Zereal haziak ziurtatzeko prozesurako teknologiak. Helburua da teknologia berriak erabiltzea zereal hazien ziurtapen prozesua hobetzeko, bai lurzatian, baita kooperatiban egiten den hau-tespen prozesuan ere.

◆ Nafarroako Aratxea adierazpen geografiko babestuko abereen autopisaketa. Helburua da ustiategi pilotu batzuetan baskula digitalak instalatzea, abereen pisuari buruzko datuak gorde eta igorriko dituztenak. Horrela datu horiek erabiltzen ahalko dira Nafarroako Aratxea AGBaren hobekuntza genetikorako, abeltzainen aholkularitza-erako eta autokontrolerako.

◆ Oidioaren iragarpen eredu Nafarroako mahasti jasangarrietarako (OIVINA). Helburua da Nafarroako nekazaritzaren eta klimaren baldintzetara egokitutako iragarpen eredu bat garatzea oidiorako, laborearen maneiua kontuan hartuko duena, eta iragarpenak doitzeko eta fungizidak aurrezteko bidea emanen duten aldagaiak gehitzea.

◆ Nekazaritza eta abeltzaintzako ekosistemak lehengoratu, zaindu eta hobetzeko ekintzak, ingurumena eta abereak monitorizatzeko gailuek bildutako datuen analisisan oinarrituak. Helburua da teknologia berriak erabiliz informazioa ematea ingurune horietako ekosistemak zaintzeko eta hobetzeko erabakiak hartu ahal izateko.

#### 4. PERTE proiektuak.

Doitasuneko nekazaritzak eta 4.0 teknologiek nekazaritzako ekoizpen sistema guztietan hedatzen ahal den eredu osatzen dute, eta ekoizleek beren ustiategietan ezartzen ahal dute. Hala, PRTRren 3. osagaiaren esparruan C3.I4 inbertsioa ezarri da, Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren jasangarritasuna eta lehiakortasuna sustatzeko Plana (III) xede duena. Ekipamenduen modernizazioa eta teknologia horien erabilera azkartzeko berariazko ildo bat aurreikusten da. Laguntzen bidez sustatu nahi da inbertsioak egitea hainbat ekipamendu, gailu eta software aplikaziotan. Askotariko irismen teknologikoak dituzte, eta konbinatu egin daitezke inbertsio proiektuetan. Hainbat teknifikazio maila hartzen dituzte: sentsoreak, prozesadoreak eta kontrolagailuak, zeinen eginkizuna baita makina gidatzea, lan aldakorra, mapatzea, datuak erregistratzea edo makinan erreakzio zehatz bat eragitea, edo hiru helburu horiek batera, edo elementu horien arteko elkarrekintza zein komunikazioa hainbat makinatan.

2022an, departamentuak sektorearen digitalizazioa hobetuko duten laguntza lerroak abiaraziko ditu, hala nola:

◆ Berotegien eraldatze integrala eta modernizazioa.

◆ Energia-efizientzia eta energia berriztagarriak (biogasa eta nekazaritzako biomasa).

◆ Doitasuneko nekazaritza eta 4.0 teknologiak nekazaritza eta abeltzaintza sektorean.

#### 5. Nekazaritzako ustiategientzako aholkularitza.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak M02. Nekazaritzako ustiategientzako aholkularitza, kudeaketa eta ordezkapen zerbitzuak neurriaren barnean sustatutako jardura da. Nafarroan onartutako aholkularitza entitatea den INTIAri enkargatzen zaio urtero jardura hori. Helburua da nekazari eta abeltzainei laguntzea nekazaritza eta abeltzaintzako teknika eta teknologia berriak erabil ditzaten eta Europar Batasunak ezarritako araudia eta legezko kudeaketa-baldintzak bete ditzaten hainbat arlotan (ingurumena, osasun publikoa, elikagaien segurtasuna, abereen osasuna eta ongizatea, laneko segurtasuna,

etab.). Onuradunek aholkuak jasotzen dituzte digitalizazioari, aplikazio informatikoei eta kontabilitate programei buruz, beste gai batzuen artean.

Iruñean, 2022ko martxoaren 3an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

## **Galdera, Justizia Zuzendaritza Nagusiaren eta Nafarroako Erregistro Orokorraren bulegoak berritzeko obretan irisgarritasunera bideratutako kostuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Justizia Zuzendaritza Nagusiaren eta Nafarroako Erregistro Orokorraren bulegoak berritzeko obretan irisgarritasunera bideratutako kostuari buruzkoa. Galdera 2022ko otsailaren 11ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22/PES-00036). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Jada otsailaren 1eko agerraldian azaldu zen bezala, Justizia Zuzendaritza Nagusiaren bulegoak, 40 bat funtzionarioen lantoki diren bulego administratiboak izateaz gain, jendeari arreta emateko bulegoak ere badira, bertan baitaude Nafarroako Gobernuaren erregistroetako bat eta bikote egonkorren erregistro bakarra.

2021eko ekainera arte, JZNren bulegoak Iruñeko monasterioa 22ko lokaleko erdisotoan egon ziren. Haietara iristeko, 17 zentimetroko eskailera-maila bat igota lokaleko beheko solairura sartu behar zen –2018tik solairu hori ez da erabiltzen– eta erdisotora jaitsi eskaileratik oinez edo bestela karga-jasogailuan, 87x120 zentimetroko kabina

batean, botoia etengabe sakatuta eduki behar den horietakoa.

Bulego horiek, goian deskribatutako oztopen ondorioz, ez zituzten betetzen ez Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legearen III. tituluko II. kapituluko 1. atalean ezarritakoa, ez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek herritarrei ematen dieten arretan erabilerratasun unibertsalera jotzen duten neurriei buruzko uztailaren 16ko 58/2014 Foru Dekretuaren II. kapitulu-lua, ezta Eraikingintzaren Kode Teknikoko Erabileraren Segurtasunari eta Irisgarritasunari buruzko Oinarriko Dokumentuaren 9. atala ere (CTE DB SUA9: Irisgarritasuna). Horiek dira erreferentziako arauak irisgarritasun baldintzak betetzeko, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera.

CTE DB SUA dokumentuaren 9. atalak (Irisgarritasuna) 1.1 puntuan honako hau dio:

«1. Eraikinetan, desgaitasuna duten pertsonentzako sarbidea eta erabilera bereizkeriarik gabekoak, independenteak eta seguruak izan daitezten, behean ezartzen diren baldintzak beteko dira, funtzionaltasunari eta elementu irisgarrien zuzkidurari dagokienez.

Irisgarritasuna zonetan

Helburua da eraikinetan sarbide eta erabilera ez-diskriminatzaile, independente eta seguruak eskaintzea desgaitasuna duten pertsonen. Beraz, “zona baterainoko irisgarritasuna” eskatzen denean hau ulertu behar da: ibilbide irisgarria dela medio, desgaitasuna duten pertsonak zona horretaraino iritsi ahal izatea, eta, behin zona horretan,

modu arrazoizkoan erabili ahal izatea bertan ematen diren zerbitzuak. Hortaz:

- Elementu irisgarriak eduki behar dituzten zonetan, esate baterako komun, plaza erreserbatu, ostatu eta abarretan, ez da beharrezkoa ibilbide irisgarria zonako elementu guztietaraino iristea, nahikoa baita elementu irisgarrietaraino iristea. Adibidez, ekitaldi areto batean, ibilbide irisgarria izan behar da solairuko sarrera irisgarri batetik hasi eta aretoko eserleku erreserbatuetaraino, baina ez derrigor aretoko eserleku guztietaraino.

- Sarrerako solairua ez den beste solairu batean, ezin bada eskatu arrapala edo igogailu irisgarria izatea edo halakorik aurreikustea, eta, beraz, ezin bada eskatu solairu horrek sarbide irisgarria izatea, ez da beharrezkoa izanen solairu horretan ibilbide irisgarriaren baldintzak aplikatzea, gupil-aulkian dabiltzan erabiltzaileen mugikortasuna xede dutenak».

Beraz, Iratxeko Monasterioaren kaleko 22ko bulegoen kasuan, kontuan izan beharreko lehen gauza da lantokiak arauan eskatutako baldintza funtzionalak bete behar dituela. Halaber, lantoki horren zuzkidurak ere elementu irisgarriak izan beharko ditu.

Sotoko -1 solairuaren irisgarritasunik eza ikusita, eta egoera hori konpontzeko neurri zuzentzaileak (igogailu irisgarria instalatzea eta ibilbide irisgarri bat lortzea) ezinezkoak zirenez, aukera bideragarri bakarra zegoen Justizia Zuzendaritza Nagusiaren egoitza horretan dauden Nafarroako Gobernuako erregistroek irisgarritasun baldintzak bete zitzaten, bai Eraikingintzaren Kode Teknikoan ezarritakoak, bai 12/2018 Foru Legean eta 58/2014 Foru Dekretuan ezarritakoak. Aukera hori lokaleko beheko solairua egokitzea zen.

Beheko solairuan hartzen ahal zen espazioak ere bazituen arkitektura-oztopoak (gelen arteko koskak) eta ez zuen inolako egokitzapenik, ez girotze instalazio, aireztapen, iturgintza instalazio, saneamendu, argindar, argiztapen eta kableatu egituraturik. Horrela ezin ziren zuzenean beheko solairura ekarri jendeari arreta emateko lanpostuak.

Aplikatu beharreko araudian eskatzen diren baldintza funtzionalak betetzeko, beharrezkoa zen, lehendabizi, gelen arteko eta barnealdearen eta kalearen arteko koskak kentzea, barnealderako sarbide irisgarria lortzeko (12/2018 Foru Legearen 22. artikulua) eta komunikazio horizontal irisgarria lortzeko (12/2018 Foru Legearen 23. artikulua).

Behin lortuta lokalaren barnealde osoan sestra bakarra izatea eta lokalera sartzeko ibilbide irisgarri bat izatea, lokalak ez zuen akaberarik zoruan, hormetan eta sabaietan, ez eta iturgintza eta saneamenduko instalaziorik, klimatizazio, aireztapen, argindar, argiztapen eta kableatu egituraturik ere.

Hain zuzen ere, lehendik baden eraikuntza batean esku hartzeko obra egin beharra zegoen, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 2. artikuluan definitzen den moduan. Beraz, zaharberitu beharreko lokalak lege horren 3. artikuluan (Eraikuntzaren oinarriko betekizunak) ezarritakoa bete behar zuen:

«1. Pertsonen segurtasuna, gizartearen ongizatea eta ingurumenaren babesa bermatzearen, eraikuntzaren oinarriko betekizun hauek ezartzen dira, erregelamenduz ezarriko den moduan bete daitezten eraikinen eta haien instalazioen proiektuan, eraikuntzan, mantentzean, kontserbazioan eta erabileran, bai eta lehendik badiren eraikinetan egiten diren esku-hartzeetan ere:

a) Funtzionaltasunari buruzkoak:

a.1) Erabilera, halako moduan non espazioen antolaerak eta neurriek eta instalazioen zuzkidurak erraztu egingen baitute eraikinean aurreikusitako eginkizunetan egokiro aritzea.

a.2) Irisgarritasuna, halako moduan non mugitzeko eta komunikatzeko gaitasun murriztuak dituzten pertsonen eraikinerako sartzeko eta eraikinean zehar ibiltzeko aukera emanen baitzaie berriazko araudian ezarritako eran.

a.3) Telekomunikazioetako, ikus-entzunezko eta informazioko zerbitzuen eskuragarritasuna, berriazko araudian ezarritakoarekin bat.

a.4) Posta zerbitzuak erabiltzeko bidea ematea, postaz igorritakoak entregatzeko instalazio egokien bidez, berriazko araudian xedatutakoarekin bat.

b) Segurtasunaren inguruak:

b.1) Egiturazko segurtasuna, halako moduan non eraikinean edo eraikin ataletan ez baita gertatuko zimendu, euskarri, habe, forjatu, karga-horma edo bestelako elementu egiturazkoetan sorburua izan edo haiei eragiten dien kalterik, ezta eraikinearen erresistentzia mekanikoa eta egonkortasuna zuzenean arriskuan jartzen duenik ere.

b.2) Suteetarako segurtasuna, halako moduan non eraikin barnean dauden pertsonak segurtasunez irteten ahalko diren, eraikinaren barnealdean eta eraikin mugakideetan suaren hedapena muga-

tzen ahalko den, eta sua itzaltzeko eta erreskatzeko lantaldeei jarduten utziko zaien.

b.3) Erabileraren segurtasuna, halako moduan non eraikinaren ohiko erabilerak ez dien istripu arriskurik sortuko pertsoneri.

c) Bizigarritasunaren ingurukoak:

c.1) Higienea, osasuna eta ingurumenaren babesa, halako moduan non osasungarritasun eta estankotasun baldintza onargarriak lortuko diren eraikinaren barnealdeko giroan, eraikinak ez duen ingurumena narriatuko bere inguru hurbilean, eta mota guztietako hondakinen kudeaketa egokia bermatuko den.

c.2) Zarataren kontrako babesa, halako moduan non zaratak ez duen arriskuan jarriko pertsonen osasuna eta beren zereginak lasai egiten utziko dien.

c.3) Energia aurrezpena eta isolamendu termikoa, halako moduan non eraikinaren erabilera egokirako behar den energia zentzuz erabiltzea lortuko den.

c.4) Eraikuntza elementuen edo instalazioen beste ezaugarri funtzional batzuk, eraikinaren erabilera egokia ahalbidetzen dutenak».

Ondorioz, ezinbestez egin ziren lokala erabat egokitzeko obrak, han aurreikusitako jarduera instalatu ahal izateko. Egokitutako lokalean, gainera, behar ziren elementu irisgarriak eta aplikatu beharreko araudiak eskatzen zituenak instalatu ziren: arreta-mahai irisgarria, ate irisgarriak, komun irisgarriak, lanpostu irisgarriak.

Ez zen bideragarria alderantzizko prozesua egitea, hau da, lokal batean elementu irisgarriak kokatzea, lokal horrek ez dituelarik betetzen ez CTE DB SUA 9 dokumentuak ezartzen dituen baldintza funtzionalak, ez Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legeak ezartzen dituen gainerrako baldintzak, ezta jarduera egin ahal izateko hainbat esparrutan ezarritako beste baldintza batzuk ere (udal ordenantzak, Langileen Estatutua, etab.)

Hori esanda, kontuan izanik beheko solairuko lokala egokitu beharra zegoela elementu irisgarriak instalatzeko –harrera-mahaia, komuna, lanpostuak, etab.–, esan daiteke Iratxeko monasterioa 22ko lokaleko beheko solairuan egindako obren kostu osoa irisgarritasunerako izan dela, bat etorri Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legearen II. kapituluko 1. ataleko 21. artikularekin (“Irisgarritasuna erabilera publikoko eraikinetan”) eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde

autonomoek herritarrei ematen dieten arretan erabilerraztasun unibertsalera jotzen duten neurriak buruzko uztailaren 16ko 58/2014 Foru Dekretuaren 5.2.a artikularekin (“Lehentasunez eta ahal den aldiro, bulegoa bide publikoaren maila berean kokatuko da. Bestela, sartzeko arrapalak edo igogailuak izan beharko ditu, desgaitasunak dituzten pertsonak beren kasa eta segurtasunez erabiltzeko moduko ezaugarriak dituztela”) eta 14. artikularekin (“Eremu higienikosanitarioetako erabilerraztasuna herritarrentzako arreta bulegoetan”).

Agerraldian azaldu zenez, ekintza hori, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak 2021eko Plan Operatiboan jaso, jada 2020an abian jarritako ekintza zen, eta komenientziagatik 2021eko Plan Operatiboan jaso genuen, egia da; hori egiteko arrazoia, ordea, iradoki denaren guztiz kontrakoa izan zen. Justizia Zuzendaritza Nagusiak badauka irisgarritasun estrategia bat planifikaturik, eta urte asko egin ditugu lanean estrategia horretan, irisgarriak izan daitezen zuzendaritza honi atxikitako eraikin eta establezimendu guztiak. Horregatik, urtero hainbat ekintza abiarazten dira eraikin eta establezimenduetan, aurrekontuko baliabideen arabera.

Kasu honetan, obra hauen bidez arkitektura-oztopoak kendu ahal izan ditugu bai zuzendaritza honetako erregistroetara iristeko (erregistro orokorra eta bikote egonkorren erregistro bakarra), bai funtzionarioen lanpostuetara iristeko, horiek ere irisgarriak izan behar baitute.

Badakigu, ordea, irisgarritasun unibertsala arkitektura-oztopoetatik harago doala, eta horretan ere lanean ari gara. Justizia Zuzendaritza honen helburua da urtero neurriak inplementatzen jarraitzea hura lortzeko zuzendaritza honi atxikitako eraikin eta establezimenduetan, eta halaxe hartu dugu konpromisoa 2022ko Plan Operatiboan. Plan operatibo horretako neurriak dira, besteak beste, begizta magnetikoak instalatzea arreta-mahaietan, Tafallako Justizia Jauregian DALCO irizpideak betetzen dituzten seinaleak jartzea, eta JZNri atxikitako eraikin, establezimendu eta instalazio guztietan egiten ari den azterketa eta katalogazio lanean detektatzen diren akatsak zuzentzeko jarduketara plana prestatzea. Gauza bera egiten da inprimaki eta agirietan ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko martxoaren 4an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

## **Galdera, Nafarroa Suspertu Plana koordinatzen duen batzorde delegatuen bilerei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroa Suspertu Plana koordinatzen duen batzorde delegatuaren bilerei buruzkoa. Galdera 2022ko otsailaren 11ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Jorge Esparza Garrido

jaunak galdera egin du Nafarroa Suspertu Plana koordinatzen duen batzorde delegatuari buruz (10-22/PES-0037). Hona Nafarroako Gobernuak lehendakariak horretaz ematen dion informazioa:

2020-2023 aldirako Nafarroa Suspertu Planean ez da aurreikusten plana koordinatuko duen batzorde delegaturik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2022ko martxoaren 4an.

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués



## **Galdera, Nafarroa Suspertu Planeko konferentzia ekonomikoaren bilerei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroa Suspertu Planeko konferentzia ekonomikoaren bilerei buruz Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana,koa. Galdera 2022ko otsailaren 11ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du Nafarroa Suspertu Planeko konferentzia ekonomikoari buruz (10-22/PES-0038). Hona Nafarroako Gobernuako lehendakariak horretaz ematen dion informazioa:

1. Zenbat aldiz eta zer egunetan bildu da, eratu zenetik, Nafarroa Suspertu Planeko konferentzia ekonomikoa?

Konferentzia ekonomikoa bi aldiz bildu da: 2020ko urriaren 22an eta 2021eko otsailaren 12an.

2. Gobernuaren zer ordezkari eta beste nork hartu du parte bilera horietako bakoitzean?

2020ko urriaren 22an egindako bileran Nafarroako Gobernuako kide hauek izan ziren: lehendakaria; lehen lehendakariorde eta Lehendakariartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria; bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria; Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria; Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria; Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria; eta lehendakariaren aholkularia, Félix Taberna.

Deitutako entitateen izenean, bideokonferentzia bidez bileran izan ziren Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko lehendakaria, Juan Carlos Castillo; Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioko, Juan Miguel Sucunza; Merkataritza Ganberakoa, Javier Taberna; ANELEkoa, Ignacio Ugalde; UCANEkoa, José M<sup>a</sup> Martínez; CERMI-

Nekoa, Mariluz Sanz; Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko kudeatzailea, Francisco Fernández; eta Nafarroako bi unibertsitateetako errektoreak: NUPekoa, Ramón Gonzalo, eta Nafarroako Unibertsitatekoa, Alfonso Sánchez-Tabernero.

2021eko otsailaren 12an egindako bilerara joan ziren, Nafarroako Gobernuaren izenean, lehendakaria, Javier Remírez eta José María Aierdi lehendakariordeak, Elma Saiz eta Mikel Irujo kontseilariak, Next Generation Funtsetarako Bulegoko zuzendari Ignacio Arrizabalaga, eta NAS-TAT Nafarroako Estatistika Institutuko zuzendari Pablo Cebrián, bai eta NEKP Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko zuzendari kudeatzailea ere, Francisco Fernández.

Sektore pribatutik honako hauek joan ziren: Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioko lehendakaria, Juan Miguel Sucunza; CERMIN Desgaitasuna duten Pertsonak ordezkatzeko dituzten Erakundeen Nafarroako Batzordeko lehendakaria, M<sup>a</sup> Luz Sanz; Merkataritza Ganberako lehendakaria, Javier Taberna; CEPES Gizarte Ekonomiako Enpresen Konfederazioko lehendakaria, Ignacio Ugalde; NUKF Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko lehendakaria, Juan Carlos Castillo; eta Nafarroako unibertsitateetako errektoreak: Ramón Gonzalo (NUP) eta Alfonso Sánchez Tabernero (Nafarroako Unibertsitatea).

3. Zein izan da bilera horietako bakoitzeko gairerrenda?

Eratzeko bilkuran aztergai izan zen Nafarroa Suspertu 2020-2023 Planaren aplikazioa, eta bildutako guztiei eskatu zitzaizen planaren gobernantzan parte har zezatela Nafarroako Gobernuarekin batera.

2021eko otsailean egindako bilkuran, Next Generation UE Europako funtsez eta deialdien funtzionamendu teknikoaz orduan zegoen informazioa eman zitzaizen bildutakoei.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2022ko martxoaren 4an

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

## **Galdera, Nafarroan sorgin-ehizaren xede izan ziren emakume nafarren memoria eta errekonozimenduari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan sorgin-ehizaren xede izan ziren emakume nafarren memoria eta errekonozimenduari buruzkoa. Galdera 2022ko otsailaren 11ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 10-22/PES-00040 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Herritarrekiko Harremanetako Departamentuari dagokionez, hona Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak ematen dion informazioa:

Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia 2015ean sortu zen, memoria historikoaren arloan 33/2013 Foru Legea garatzeko programa-akordio baten inguruan; akordio

hori berretsi egin zen 2019ko programa-itun berrian. Jakina denez, lege horrek 1936ko kolpe militarren ondoren piztutako indarkeriaren biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematea du xede, eta zenbait aplikazio-esparru ezartzen ditu, ardatz dituztenak, besteak beste, biktimen erreparazioa, desobiratzeen politika, ADN bankua, ikur frankisten ezabaketa eta memoriaren tokiak. Bestalde, Memoriaren Tokiei buruzko 29/2018 Foru Legeak 4. artikuluan argi uzten du noiztik noiz artekoa den bere aplikazio aldi kronologikoa: 1936ko kolpe militarretik hasi eta Konstituzioak indarra hartu artekoa (1978ko abenduaren 29a).

Galderan aipatzen diren gertaera eta prozesu historikoak esparru kronologiko horretatik oso urrun daude eta, beraz, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren eskumenetik kanpo.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2022ko martxoaren 2an

Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria: Ana Olo Hualde

## **Galdera, Kideak programari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Kideak programari buruz Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko otsailaren 11ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen

Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-22/PES-00041). Hona hemen Nafarroako Gobernuo Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Parlamentari jaunaren galderan eskatzen diren datu zehatzak Legebiltzarreko Erregelamenduen 14. artikuluko erregelamenduzko prozedurari jarraituz eskatu behar dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko martxoaren 4an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren izendapena.**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko apirilaren 8an egindako bileran, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 25. artikuluekin bat, eta behar den gehiengoarekin, José Ignacio Cabeza del Salvador jauna izendatu du Kontuen Ganberako lehendakari, sei urteko aldi baterako.

Iruñean, 2022ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---